



AZALPENA

Sekuentzia didaktiko honetan ikasleek intsektuak zer diren landuko dute marrazketaren bidez, behaketa gaitasunak trebatzen dituzten bitartean.

KRONOGRAMA

2-3 saio eta behaketarako tarte beharko dira sekuentzia didaktiko hau burutzeko.

	1. SAIOA	2. SAIOA	3. SAIOA
1. JARDUERA			
2. JARDUERA			
3. JARDUERA			
4. JARDUERA			
5. JARDUERA			
6. JARDUERA			
7. JARDUERA			





1. JARDUERA: Aurrezagutzak arakatzen

Beste ezer baino lehen, ikasleei euren koadernoko orri batean intsektu bat marrazteko eskatuko zaie arkatza eta borragoma soilik erabiliz, 3 minututan. Hala, buruan duten intsektua, eurek uste duten modukoa, irudikatu beharko dute paperean.

Ondoren, hainbat galdera egingo zaizkie eta euren erantzuna arbelean idatziko dugu:

- Nolakoa da marraztu duzuen intsektua?
- Zein gorputz atal eta zenbat marraztu dizkiezue zuen intsektuei?
- Zenbat hanka dituzte zuen intsektuek?
- Zenbat hego?
- Ba al dute antenarik?
- Ze kolore dute zuen intsektuek?

Galderen erantzunik eman gabe, ikasleei azken galdera hau egingo diegu: Orduan, zer izan behar du intsektu batek intsektu izateko? Ba, horixe da hurrengo saioetan ikusiko duguna!

Hau egin ostean, irakasleak, [1. eranskinean](#) bildutako arazo-egoera aurkeztuko du ikasgelan, eta denek ulertu dutela ziurtatuko du.

OHARRAK:

Ikasleek euren marrazkiak sortzen dituzten bitartean, komenigarria da marrazki hauek behatzen joatea ikasle bakoitzak intsektu baten inguruan duen ideia ezagutzeko.



2. JARDUERA: Talde lana I

4-5 pertsonako taldeak sortu eta taldekide bakoitzari intsektu mota baten argazkiz osatutako fitxa bat emango diegu, [2. eranskina](#).

- Lepidopteroak: Tximeletak eta sitsak.
- Dipteroak: Etxe euliak, eltxoak eta ezparak.
- Himenopteroak: Erleak, liztorrak eta inurriak.
- Koleopteroak: Kakalardoak.
- Diktipteroak: Mantisak, termitak eta labezomorroak.

Ikasleen lehen zeregina egokitutako intsektua ondo behatu eta marraztea izango da. Intsektua behatzerako orduan ordea [3. eranskineko](#) galderai erantzuten saiatuko dira euren marrazkiaren bidez.

Taldekide guztiek euren marrazkia amaitzean guztien artean [4. eranskina](#) bete beharko dute bertako galderai erantzunez. Modu horretan, euren artean intsektu guztien ezaugarri bereizgarriak zein diren zehaztu beharko dute.

Ondoren, ikasle talde bakoitzak euren ondorioak talde handian partekatuko ditu.

OHARRAK

Argi utzi behar diegu ikasleei ez ditugula ebaluatuko, ez euren marrazteko gaitasuna, ezta marrazkiaren kalitatea ere. Aldiz, jardueraren helburua intsektu guztiek partekatzen dituzten gorputz atalak eta ezaugarriak zein diren identifikatu eta marrazki bidez adieraztea da, behaketa landuz. Ikasleek marrazkiaren perfekzioan zentratu ez daitezen komenigarria da arkatzarekin soilik marrazteko eskatzea.



3. JARDUERA: Marraz ditzagun hainbat intsektu

Argi dago ikasle bakoitzak bere dohainak dituela eta ikasle guztiek ez dutela gaitasun bera izango marrazkiak osatzeko. Honenbestez, posible da intsektu bat marrazteko eskatzean hainbatek zailtasunak izatea. Baliteke batzuek ez jakitea nondik hasi, zeri erreparatu, zein atal banbarmendu, eta abar.

Asmatutako intsektuak marrazteko eskatuko diegu, lana apur bat errazteko eta ikasleek marrazketa lantzearekin batera euren buruarengan konfiantza sustatzeko. Hori bai, intsektu izateko beharrezko baldintzak beteaz.

Horretarako, [5. eranskineko](#) marrazkietatik abiatuta, intsektu berriak marraztu beharko dituzte.

OHARRAK

Jarduera hau 10-15 minutuan garatu daiteke, ikasleek konfiantza har dezaten. Denbora gehiago behar izanez gero, beharrezko denbora eskaini arikerari.

4. JARDUERA: Ni ere intsektu bat naiz

Taldeka lanean ari direla aprobetxatuz, ikasle talde bakoitzak intsektu bat aukeratuko du aurreko jardueran banatutako fitxetatik edo Internetetik.

Ondoren, taldeka poster bat sortu beharko dute, baina baldintza batzuekin:

- 1. baldintza: Posterraren izenburua honakoa izango da:

Ni bat naiz eta ni ere intsektu bat naiz.

- 2. baldintza: Intsektua marraztea intsektu egiten duten ezaugarriak identifikatuz: antenak, hankak, hegoak.... Horretarako, [6.eranskineko](#) elkarlana egin beharko dute.
- 3. baldintza: Intsektuaren izen zientifikoa eta euskarazko izena gehitzea posterrean.
- 4. baldintza: Intsektua bizi den lurraldea zehaztea, bere habitat edo ingurunea.

5. baldintza: Intsektuaren inguruko pare bat ezaugarri bereizgarri edo kurioso gehitzea: elikadura, tamaina...



Posterraren helburua ikasleek eurek aukeratutako intsektua gehiago ezagutzea eta berau intsektu bat dela frogatzea da. Hala intsektu izateko beharrezko baldintzak ikasi dituztela frogatuko dute eta ikasleek euren ezagutzak poster bidez transmititzeko gaitasuna ere landuko dute.

5. JARDUERA: Aurkezpena

Ikasle talde bakoitzak euren posterra aurkeztu beharko du gelan.

6. JARDUERA: Atzera begira

Behin intsektu batek izan behar dituen ezaugarriak garbi izanda, ikasleek 1. jardueran eginiko intsektuaren marrazkia behatu eta eurek marraztutako animalia intsektu bat den edo ez zehaztu beharko dute. Intsektua ez bada, intsektu izateko beharrezko atalak gehitu edo kendu beharko dizkio animalari beste kolore bateko boligrafoa erabiliz.

Hori egin ostean, arazo-egoerara itzuli, eta armiarmak intsektuak diren edo ez galdetuko zaie ikasleei. Euren erantzuna justifikatzea eskatuko diegu.

7. JARDUERA: Orokortzea

Azken jarduera bezala, ikasleei [7.eranskina](#) betetzeko eskatuko diegu. Bertan hainbat animalia irudiak izango dituzte eta ikasleek irudiko animaliak intsektuak diren edo ez zehaztu beharko dute guztia ondo ulertu dutela bermatzeko.